
AURTENGO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK BADITU IRABAZLEAK

Beñat Zalduak irabazi du Kazetaritza saria *Nola iritsi gara honaino* artikula sortagatik, eta **BASILIKA podcastak irabazi du Komunikazio saria.**

Azaroaren 19an, ostiral ilunabarrean, ospatu da Andoainen 2021ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ekitaldi nagusia. Bertan eman dira ezagutzera aurtengo saridunak: kazetaritza sariaren irabazle **Beñat Zalduak** idatzitako ***Nola iritsi gara honaino*** seriea izan da. Komunikazio sariaren irabazle **BASILIKA** podcast-a

Ondorengoak izan dira bi saridunak izendatzeko epaimahaiak nabarmendu eta ezagutzera eman dituen arrazoiak, hitzez hitz:

Beñat Zalduak idatzitako *Nola iritsi gara honaino* seriea (Gara)

Gara egunkarian agerturiko artikulu sorta bat da Beñat Zalduari dagokion proposamena. Pandemiaren eta birusen inguruko xehetasun historiko eta literarioak ekartzen dizkio irakurleari, aldi batetik bestera, irakurlearen arreta bereganatzea eta luzeran atxikitzea lortuz. Denboran barna egindako bidaia batera deitzen gaitu, eritasunak kudeatze alorrean nondik gatozen ikas eta jakin dezagun. Koronabirusaren krisia klima aldaketarekin eta beste zenbait gertaerarekin lotzen ditu Zalduak, haren zergatietan sakonduz. Urte hasieran argitaraturiko sorta, guztira, zortzi artikuluz osatuta dago. Epaimahaiaren iritziz historia humano baten dibulgazio saio indartsua da, aberatsa, zorrotza eta irakurtzeko erakargarria, artikulua idazteko garaian irakurlea gaiaren mamira nola erakarri aintzakotzat izan duena, ahaztu gabe ere Iker Morenoren Ilustrazioek argitaratutakoari ematen dioten originaltasuna eta exotismoa.

BASILIKA podcasta

Diziplina anitz elkartzen duen Basilika kultur ekimenak sortua da podcasta, hausnarketa kritikoa bultzatzeko xedez. Literaturaren eta arte garaikidearen arlo ezberdinak jorratzen ditu podcast berri honek. Hilabetean behin lauzpabost saio plazaratzen dituzte. Gogoetara eramaten gaituzte. Sakoneta, Zeelanda Berria, Phoenix Raggazza eta Sector Conflictivo dira oraingoz egindako saioak. Orain arte, gai hauek aztertu eta eztabaidatu dituzte: Onespina eta abusua, Moderno izatea zen den eta kultur kritikaren arazoa, besteak beste. Arte mailan aldiz, EH-ko museoetan ikusten ahal diren erakusketa originalak aipatzen dituzte, artistak zein mugimendu artistikoak ere bai... Interes handiko gaiak dira, orokorrean. Sortzaileek adierazi dutenez “pentsamendu konparatuan, hausnarketa kritikoa eta gaur egungo kultur ekoizpenaren forma desberdinen gaurkotasun-harremanetan arakatzea” da asmoa. Literaturak jendartea edo gizartea islatzen duela sinesten dutenentzat ezinbestekoa.

Bi sari, kazetaritza saria eta komunikazio saria, biak maila berekoak: 9.000 euro eta Xabier Lakak RAKSerako berariaz egindako oroikurra eman dira sari banatan.

Epaimahaiak azaro hasieran zortzi finalista izendatu zituen aurtengo sarirako. Kazetaritza Sariko finalista izan dira, irabazlearekin batera, Berria egunkarian argitaratutako **Ahomentan** elkarrizketen seriea, **Zaballako espetxetik egindako Faktoria** saioa (Euskadi Irratia), eta **Urtzi Urrutikoetxeak** idazten duen **Leku-Lekutan** izeneko atala (Berria). Komunikazio Sariko finalista izan dira, irabazlearekin batera, **Oier Aranzabalen Barruan gaude** podcast-a, **3000twitz kolektiboa** eta **Pantailak euskaraz** egitasmoa.

Aurtengo sari banaketa ekitaldiak gogoan izan du **Martin Ugalde** bere jaiotzaren mendeurrenean. Martin Ugalderen lana aitortu eta eskertzeko ere baliatu da, beraz, RAKSen XXXIII. Edizioko sari banaketa ekitaldia.

Ekitaldiak izan ditu gozamenerako aukera ezberdinak, besteak beste, **Mikel Moreno** abeslari andoaindarra berriro ere taula gainean ikusteko aukera izan da. Bidelagun izan du **Anne Lukin** abeslari eta konposatzaile iruñarra. **Susana Cencillo** soinu-jolearen melodiak dantzatzeko aukera izan dute **Urki** eta **Oinkari** dantza taldeek.

Ekitaldiaren gidaritza **Laida Basurto** kazetariak egin du, eta hitza hartu dute Andoaingo alkate **Maidor Lainez** andreak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Polikako sailburu **Bingen Zupiria** jaunak. Irabazleek ere hitza hartu dute eskerrak emateko. Bertan izan dira, aurtengo RAKSeko zortzi finalistak, hainbat erakundetako ordezkariak, Kazetaritza Elkargoaren buruzagiak eta euskalgintzako eragile ugari.

Finalisten artean sarituak aukeratzeko ardurua epaimahaiak izan du, eta **Alexander Huitzi** Andoaingo Udaleko Euskara zinegotzi ahalduna izan da mahaiburu. Harekin batera mahaikide izan dira: **Itxaro Borda** (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), **Aingeru Epaltza** (idazlea eta hainbat hedabidetako kolaboratzailea), **Maite Goñi** (MUko HUHEZIKo irakaslea eta komunikazioan aditua), **Elixabete Larrinaga** (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakaslea), **Ion Muñoa** (Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Graduko irakaslea), eta **Jon Sarasua** (MUko HUHEZIKo irakaslea eta komunikazioan aditua) eta idazkari lanetan, **Patxi Baztarrika** eta **Arantza Aguado**, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria.

Andoain, 2021eko azaroak 19

EL PREMIO DE PERIODISMO RIKARDO ARREGI DE ESTE AÑO YA TIENE GANADORES

Beñat Zaldúa, por la serie de artículos *Nola iritsi gara honaino*, ha ganado el premio de Periodismo, y el podcast *BASILIKA* ha ganado el premio de Comunicación.

El viernes 19 de noviembre, al atardecer, se ha celebrado en Andoain el acto central de los Premios Rikardo Arregi de Periodismo 2021. Allí se han dado a conocer los premiados de este año: ha sido la serie *Nola iritsi gara honaino* escrita por **Beñat Zaldúa**, ganador del premio de periodismo. En cuanto al premio de comunicación, el premio ha sido para el Podcast **BASILIKA**.

Las razones destacadas y dadas a conocer por el jurado para designar a los dos premiados han sido, las siguientes:

La serie *Nola iritsi gara honaino* escrita por Beñat Zaldúa (Gara)

La propuesta de Beñat Zaldúa es una selección de artículos publicados en el diario Gara. Aporta al lector detalles históricos y literarios sobre la pandemia y los virus, consiguiendo captar la atención del lector de un tiempo a otro y retenerlo en longitud. Nos llama a un viaje a través del tiempo para que aprendamos de dónde venimos en la gestión de enfermedades. Zaldúa relaciona la crisis del coronavirus con el cambio climático y otros acontecimientos, ahondando en sus causas. La serie publicada a principios de año está compuesta por un total de ocho artículos. En opinión del jurado, se trata de un potente ensayo de divulgación de una historia humana, rica, rigurosa y atractiva para la lectura, que a la hora de escribir el artículo ha tenido en cuenta cómo atraer al lector al fondo del tema, sin olvidar la originalidad y el exotismo que aportan las ilustraciones de Iker Moreno a lo publicado.

El podcast *BASILIKA*

El podcast nace de la iniciativa cultural Basilika, multidisciplinar, con el objetivo de impulsar la reflexión crítica. Este nuevo podcast aborda diferentes campos de la literatura y el arte contemporáneo. Una vez al mes publican cuatro o cinco sesiones. Nos llevan a la reflexión. Sakoneta, Nueva Zelanda, Phoenix Raggazza y Sector Conflictivo son los programas realizados de momento. Hasta el momento, se han tratado y debatido temas como la aprobación y el abuso, qué es ser moderno o el problema de la crítica cultural, entre otros. A nivel artístico, en cambio, mencionan las exposiciones originales que se pueden ver en los museos de EH, tanto artistas como movimientos artísticos... Son temas de gran interés general. Según sus creadores, se trata de “explorar el pensamiento comparado, la reflexión crítica y las relaciones de actualidad de las diferentes formas de producción cultural contemporánea”. Imprescindible para quienes creen que la literatura refleja a la sociedad.

Dos galardones, el de periodismo y el de comunicación, ambos del mismo nivel: 9.000 euros y un recuerdo del RAKS realizado por Xabier Laka.

El jurado nominó a principios de noviembre a ocho finalistas para el premio de este año. Los finalistas del Premio de Periodismo han sido, junto al ganador, la serie de entrevistas **Ahomentan** publicada en el diario Berria, el programa **Faktoria desde la cárcel de Zaballa** (Euskadi Irratia), y la sección **Leku-Lekutan** (Berria) que escribe **Urtzi Urrutikoetxea**. Para el premio de comunicación, han sido finalistas, junto al ganador, el podcast **Barruan gaude** de **Oier Aranzabal**, el colectivo **3000twitz** y el proyecto **Pantailak euskaraz**.

La ceremonia de entrega de premios de este año ha recordado a **Martin Ugalde** en el centenario de su nacimiento. La edición XXXIII de RAKS ha servido, por tanto, para reconocer y agradecer todo el trabajo y la aportación de Martin Ugalde.

El evento ha tenido diferentes ocasiones de disfrute, entre ellas, la oportunidad de ver de nuevo sobre el escenario al cantante andoainarra **Mikel Moreno** Le ha acompañado la cantante y compositora pamplonesa **Anne Lukin**. Los grupos de baile **Urki** y **Oinkari** han tenido la oportunidad de bailar las melodías de la acordeonista **Susana Cencillo**.

El acto ha sido presidido por la periodista **Laida Basurto** y han tomado la palabra la alcaldesa de Andoain, **Maidor Lainez**, y el Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, **Bingen Zupiria**. Los ganadores también han tomado la palabra para dar las gracias. Han estado presentes, los ocho finalistas del RAKS de este año, representantes de diferentes instituciones, dirigentes del Colegio de Periodismo y numerosos agentes del mundo del euskera.

La elección de los premiados entre los finalistas ha corrido a cargo del jurado, que ha presidido el concejal delegado de Euskera del Ayuntamiento de Andoain, **Alexander Huitzi**. Le han acompañado en la mesa **Itxaro Borda** (escritora y colaboradora de prensa), **Aingeru Epaltza** (escritora y colaboradora de diversos medios de comunicación), **Maite Goñi** (profesora de HUHEZI en MU y experta en comunicación), **Elixabete Larrinaga** (profesora de la facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la UPV/EHU), **Ion Muñoa** (profesor del Grado de Comunicación de la Universidad de Deusto), **Jon Sarasua** (profesor de HUHEZI-MU y experto en Comunicación), y en trabajos de secretaria los técnicos de Euskara del Ayuntamiento de Andoain **Patxi Baztarrika** y **Arantza Aguado**.

Andoain, 19 de noviembre de 2021